



adostu 'hitzartu, elkarren artean onartu'	«Ezbairik gabe, elkarren arteko borrokak eta sarraskiak utzi, eta denen gustukoa izanen zen irtenbidea adostu beharra zegoen.»	(45)
ahalik eta ...-en 'albeit ...-en'	«Eta ahal zuen heinean, galderei ahalik eta egokien erantzun zien...»	(24)
ahaltsuegi 'indartsuegia, gogorregia'	«Eta egunez egun, poliki-poliki, enborra ahaltsuegia dela sinesten du.»	(17)
aldarrikapen 'eskaria'	«...guztien eskubideak errespetatzen dituen eta izokin guztien aldarrikapenak biltzen dituen honako hitzarmena lege bihurtu eta indarrean sartuko da.»	(51)
amore eman 'etsi, errenditu'	«Baina gazteek ez zuten amore eman nahi, eta etengabe harresien aurka abiatzen ziren...»	(34)
arakatu 'miatu, aztertu, ikertu'	«...arrain haztegiko liburutegia arakatu , eta izokinei buruzko liburuak irensten zituen.»	(22)
aro 'giroa'	«Egoera ez zen nolanhikoa, eta ibaiaren hegian aspaldiko egun eguzkitsu eta ederrenetakoa ageri bazen ere... Ekaitz aroa sumatzen zen.»	(33)
arreta pausatu 'arreta galdu'	«Mendia eta itsasoa besarkatzen ziren herri hartan, ordea, inork ez zuen arretarik pausatzen .»	(55)
arribatu 'porturatu, kaira sartu'	«...marinelen senideak bakarrik gerturatzen ziren inguru hartara, ontziak itsasoratzen edo arribatzen ikustera.»	(56)
auskalo! 'batek jakin!'	«—Hemen lasai bizi gara, arriskurik gabe. Errekan, berriz, auskalo! »	(23)
balentria 'ekintza ausarta'	«Ea beste izokinen batek lehenago halako balentriarik egin zuen.»	(22)
baliatu 'aprobetxatu, erabili'	«Gogoetarako beharrea, ordea, elkarren artean ika-mikan eta borrokan hasteko baliatu zuten egoera berria.»	(31)
bare 'lasai-lasai'	«—Arrain haztegian ura bare egoten denez, ilargia eta izarrak ikus ditzakegu...»	(23)
barrena 'zehir, gairi'	«Ibai ertzean luzatzen diren zuhaitzetan barrena , eguneroko itzulua egiten ari zen enara.»	(9)
baztertu 'alboratu, alde batera utzi'	«...beharbada haietako batzuk jauzi egiteko asmoa baztertu eta haztegian geratzea erabaki zezaketen.»	(46)
beharbada 'agian, ausaz, apika, igual'	«... beharbada haietako batzuk jauzi egiteko asmoa baztertu eta haztegian geratzea erabaki zezaketen.»	(46)
beharrea 'barik, izan ordez'	« Gogoetarako beharrea, ordea, elkarren artean ika-mikan eta borrokan hasteko baliatu zuten egoera berria.»	(31)
burusi 'manta'	«Hotz honekin ezin dugu lorik egin, eta guri gizonei baino burusi gutxiago ematen dizkigute.»	(38)
distira 'argi printza'	«Behin, ordea, izokin gazte baten distirak enararen arreta piztu zuen.»	(9)
duintasun 'dignitatatea, jatorrasuna'	«Eta ohorea, maitasuna, irrika, duintasuna , ausardia eta beldur apur bat bilduta, urduri, uretan abiada hartu eta (...) salto egin zuen...»	(60)
egundoko 'sekulako, itzelezko'	«...errekan behera enararen bila abiatzeko egundoko irrika sortzen zitzaion.»	(14)
ei 'omen' (diotenez)	«Arrantzaleak agertzen ei dira noiznahi.»	(23)
eledun 'bozemailea'	«Eta beste hitzik gabe, izokin eledunak amaitutzat eman zuen hartutako erabakien azalpena.»	(51)
elkarrekin 'batera'	«Izan ere, enarak eta izokinak ezin dira elkarrekin egon.»	(14)



enara 'elaia, ainara...' (Txori mota)	«Ibai ertzean luzatzen diren zuhaitzetan barrena, eguneroko itzulia egiten ari zen enara .»	(9)
enbarazu egin 'traba egin, oztopatu'	«Gainontzeko guztiak nahikoa amorratuta zituen gauez argia piztu eta irakurtzen egoten zelako, besteen atsedinari enbarazu eginez .»	(22)
entseatu 'saioak egin'	«... eta gutxi batzuek jauzi ttipiak ere entseatz en zituzten.»	(31)
errun 'arrautzak errun'	«...eta noizbait ibaian gora itzuliko ziren berriro, errutera .»	(64)
eskifaia 'tripulazioa'	«Ontzia izozmendiak gero eta gehiago inguratzen zutenez, bidaiariak ere eskifaia gero eta urduriago zeuden...»	(37)
esnatu 'itzartu, atzarri'	«Hurrengo egunean, bertara hurbiltzeko irrikaz esnatu eta berehala gerturatu zen haztegia.»	(10)
ezbairik gabe 'zalantza gabe, duda barik'	« Ezbairik gabe , elkarren arteko borrokak eta sarraskiak utzi, eta denen gustukoa izanen zen irtenbidea adostu beharra zegoen.»	(45)
ezinikusi 'gorrotoa, hegigoa'	«Eta haien arteko ezinikusiak eta tirabirak handiagotuz joan ziren.»	(34)
galbide 'hondamena, akabua'	«...baina itsasoan ez da pausalekurik, eta norabide hura galbidea litzateke enararentzat.»	(67)
garden 'garbi-garbia, transparentea'	«Diamanterik preziatuena baino dotore, garden eta distiratsuagoa.»	(10)
gatibutasun 'esklabutza'	«Haztegiaren egotea gatibutasuna iruditzen zitzaaien...»	(52)
geldo 'mugitu barik'	«Egin zezakeen, noski, baina senideak eta lagunak ere harresi haien barruan zeuden, eguneroko dosia jan eta geldo , lasai.»	(27)
gerturatu 'hurreratu, hurbildu'	«Hurrengo egunean, bertara hurbiltzeko irrikaz esnatu eta berehala gerturatu zen haztegia.»	(10)
gerturatu 'hurreratu, hurbildu'	«...harriturik begiratu zuten portura, eta bertara zeharo gerturatu aurretik, itsasoratzean kareletik lehorrean geratu zirenei bidalitako musuak...»	(57)
harresi 'horma handia, hesia eginez'	«Arrain haztegiako harresiak ez ziren handiak. Baina ez zen ausartzen handik erre kara salto egiten.»	(14)
hartara 'horrela, modu horretan'	« Hartara , errekan behera abiatu, eta gauez ere enararekin biltzeko aukera izanen zuen.»	(16)
hazi 'handia egin'	«Heldu eta hazi egiten denean (...) nahikoa da elefantearen lau hanketako bat hesola bati lotzea.»	(17)
hegi 'hegala, bazterra, ertza'	«Egoera ez zen nolana hokoa, eta ibaiaren hegian aspaldiko egun eguzkitsu eta ederrenetakoa ageri bazen ere... Ekaitz aroa sumatzen zen.»	(33)
heinean 'neurrian'	«Eta ahal zuen heinean , galderei ahalik eta egokien erantzun zien...»	(24)
hesola 'haga, estaka'	«Heldu eta hazi egiten denean (...) nahikoa da elefantearen lau hanketako bat hesola bati lotzea.»	(18)
hitzarmen 'ituna, paktua, akordioa'	«...guztien eskubideak errespetatzen dituen eta izokin guztien aldarrikapenak biltzen dituen honako hitzarmena lege bihurtu eta indarrean sartuko da.»	(51)
hobe beharrez 'onerako, ona izango delakoan'	«Baina egiten ari zen guztia izokin guztien hobe beharrez zela sinetsita...»	(29)
hutsa (adj.) 'erabat, guztiz, (adj. + adj.)'	«...leloturik geratzen gara begira, motel. Inozo hutsak gara!»	(32)
ika-mikan 'eztabaidan, sesioan, liskarrean'	«Gogoetarako beharrean, ordea, elkarren artean ika-mikan eta borrokan hasteko baliatu zuten egoera berria.»	(31)



iristerako 'iritsi orduko, baino lehenago'	«Eta gauerdia iristerako , haztegiko izokin guztiek ezagutzen zuten itsasontziaren istorioa, bakoitzak bereari temati eutsi eta norabidea ez	(43)
irrikaz 'gogo biziz'	«Hurrengo egunean, bertara hurbiltzeko irrikaz esnatu eta berehala gerturatu zen haztegira.»	(10)
irrikitan 'gogo biziz'	«Izokin gaztea errekarra salto egiteko irrikitan zegoen.»	(59)
izozmendi 'iceberga'	«...eta ontzia iparralderantz bideratu zuten, lehen izozmendi arriskutsuak aurkitu arte.»	(37)
jauzi 'saltoa'	«... eta gutxi batzuek jauzi ttipiak ere entseetzen zituzten.»	(31)
karel 'itsasontzien hegala, kaskoa'	«...harriturik begiratu zuten portura, eta bertara zeharo gerturatu aurretik, itsasoratzean kareletik lehorrean geratu zirenei bidalitako musuak...»	(57)
kondaira 'legenda, antzinako istorioa'	«Egun batean, ordea, kondaira arabiar bat kontatu zion enarak.»	(16)
malenkonia 'tristura'	«Hurrengo goizean, beraz, malenkoniaz agurtu zuen izokina.»	(66)
mesfidati 'mesfidantzaz, konfiantza barik'	«...beraz, aurpegi ilunez eta mesfidati begiratu zioten.»	(22)
moldatu 'konpondu'	«Hauek ere, nola edo hala moldatzen ziren hitz egiteko, batak besteari istorioak kontatzeko, eta musuak emateko.»	(15)
motel '(lag.) mutiko, txo'	«...leloturik geratzen gara begira, motel . Inozo hutsak gara!»	(32)
ontzi-mutil 'grumetea, marinel gaztea'	«Baina inork ez zion kasurik egin, ontzi-mutil soila zelako.»	(39)
ordudanik 'handik aurrera, orduz gero'	«...irudimenak bihotz bat sortu zuen bien artean, eta bihotz hark lotu zituen ordudanik bien irribarre eta begiradak.»	(13)
oskorri 'arrastiri gorria, zeru gorria'	«Arratsaldea zauriturik erretiratzen denean oskorri ederrak sortzen dira, eta haiei begira itzuli ohi zen berriro sorlekura...»	(9)
paratu 'jarri, ipini'	«Gainontzekoek denborarekin ekingo diote bideari, ereduari, baina norbaitek paratu behar ditu lehen tulipa gorriak.»	(59)
pasatu 'gertatu, agitu'	«Ezer pasa gabe pasatzen zen denbora.»	(16)
poliki-poliki 'astiro-astiro, apurka-apurka'	«Eta egunez egun, poliki-poliki , enborra ahaltsuegia dela sinesten du.»	(17)
salabardo 'arrantza tresna'	«Elkarri irainka eta muturrekoka ari ziren izokin gehienak, eta zaintzaileak salabardoaz erretiratzen zituen hildako arrainak.»	(36)
sarraski 'triskantza, suntsiketa'	«Ezbairik gabe, elkarren arteko borrokak eta sarraskiak utzi, eta denen gustukoa izanen zen irtenbidea adostu beharra zegoen.»	(45)
senide 'familiako'	«Egin zezakeen, noski, baina senideak eta lagunak ere harresi haien barruan zeuden, eguneroko dosia jan eta geldo, lasai.»	(27)
soil 'hutsa, beste barik, besterik ez'	«Baina inork ez zion kasurik egin, ontzi-mutil soila zelako.»	(39)
solasean 'berbetan, hizketan, eleketan'	«Lurralde urrunetatik itzulitako izokina itsasoaz eta askatasunaz hasi zitzairen solasean .»	(68)
sumatu 'igerri, nabaritu'	«Izokin gazteak berehala sumatu zuen uraren beste aldean agerturiko enara hark berarentzat abesten zuela.»	(13)
temati 'tinkotasunez'	«Eta gauerdia iristerako, haztegiko izokin guztiek ezagutzen zuten itsasontziaren istorioa, bakoitzak bereari temati eutsi eta norabidea ez	(43)



Hitza - Esanahia	Testuingurua	Orrialdea
tirabira 'tentsioa'	«Eta haien arteko ezinikusiak eta tirabirak handiagotuz joan ziren.»	(34)
tulipa 'tulipana (lore mota)'	«Egun batean, ordea, norbaitek tulipa gorri bat jarri zuen leihoan.»	(56)
zeharo 'guztiz'	«...harriturik begiratu zuten portura, eta bertara zeharo gerturatu aurretik, itsasoratzean kareletik lehorrean geratu zirenei bidalitako musuak...»	(57)
zilegi 'bidezkoa, justua'	«Izan ere, ez zen zilegi inor behartzea egin nahi ez zuen zerbait egitera.»	(48)
zipriztin 'txiplistada'	«Salto egin zuen izokinak, enararen bila, eta honek, gustura uzten zizkion musuak zipriztin artean.»	(61)